Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Urnietako udala

## Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Urnietako Udalaren arteko lankidetza hitzarmena, 2017-2020 aldiko Gipuzkoako Kirol Ekipamenduen Planean aurreikusitako inbertsioak gauzatzeko.

Donostian, 2019ko urtarrilaren 22an

### BILDU DIRA

Alde batetik, Denis Itxaso González jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean eta ordezkaritzan, hain zuzen ere 6/2005 Foru Arauak, uztailaren 12koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 40.3.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, baita 3/2015 Foru Dekretuak, ekainaren 24koak, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak, eta horiei dagozkien jardun esparruan eta eginkizunak finkatzekoak eta 16/2016 Foru Dekretuak, uztailaren 19koak, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak xedatutakoaren arabera ere.

Bestetik, Mikel Pagola Tolosa jauna, Urnietako Udaleko alkatea, udal horren ordezkaritzan.

Bi alderdiek elkarri aitortzen diote lankidetza hitzarmen hau sinatzeko behar den lege gaitasuna, eta horretarako ondorengoa

Alkatetza
Urnietako udala

### ADIERAZTEN DUTE

I.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2017-2020 Kudeaketa Plan Estrategikoak, hurrengo urteetan gobernua ekintzaren lidergoaren eta orientazioaren tresna nagusia izango denak, jasotzen duen ekintzetako bat lau urteko plana da, 2017-2020 aldian kirol azpiegiturak eraldatzeko, berritzeko, lekuz aldatzeko eta ordezteko.

II.- Helburu hori lortzeko, Diputatuen Kontseiluak,

## Convenio de colaboracion entre la Diputacion Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Urnieta para la ejecución de las inversiones previstas en el Plan de Equipamientos Deportivos para Gipuzkoa 2017-2020.

En San Sebastián, a 22 de enero de 2019

### SE REÚNEN

De una parte, D. Denis Itxaso González, en nombre y representación de la Diputación Foral de Gipuzkoa, de acuerdo con lo establecido en el artículo 40.3.b) de la Norma Foral 6/2005 de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, asi como en el artículo 6 del Decreto Foral 3/2015, de 24 de junio, de determinación de los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y de sus áreas de actuación y funciones y en el Decreto Foral 16/2016, de 19 de julio, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes.

De otra, D. Mikel Pagola Tolosa, en su calidad de alcalde del Ayuntamiento de Urnieta y en representación del mismo.

Ambas partes se reconocen capacidad legal suficiente para el otorgamiento del presente convenio y, al efecto

### EXPONEN

I.- Una de las acciones que se recoge en el Plan Estratégico de Gestión 2017-2020 de la Diputación Foral de Gipuzkoa, principal instrumento para el liderazgo y orientación de la acción de gobierno durante los próximos años, es la aprobación de un nuevo Plan cuatrianual de remodelación, reforma, traslado y sustitución de infraestructuras deportivas para el periodo 2017-2020.

II.- Para la consecución de este objetivo, el Consejo

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Urnietako udala

2017ko urtarrilaren 10ean egindako batzarraldian, 2017-2020 aldiko Gipuzkoako Kirol Ekipamenduen Planeko diru laguntzak emateko oinarriak onetsi zituen. Halaber, aipatutako diru laguntzen deialdia Diputatuen Kontseiluak egun berean hartutako erabakiaren bidez onetsi zen, eta, 2017ko urtarrilaren 24ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (15 zk.).

de Gobierno Foral, en sesión celebrada el 10 de enero de 2017, aprobó las bases reguladoras del otorgamiento de subvenciones del plan de "Equipamientos Deportivos para Gipuzkoa 2017-2020". Asimismo, mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de la misma fecha, se aprobó la convocatoria de las citadas ayudas, que fue publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 15, de 24 de enero de 2017.

III.- Kirol ekipamenduen plan horrek bere egiten du, batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat inbertsio finantzatzea lurraldean kirol azpiegitura bat egonkortzeko, zeinak aukera emango baitu denok kirola egiteko, eta, bestetik, sustatzea herritar guztiek kirola eta jarduera fisikoa praktikatzea baldintza eta aukera berdinetan.

III.- Este plan de equipamientos deportivos contempla la financiación, por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa, de una serie de inversiones para consolidar en el territorio una infraestructura deportiva que posibilite el acceso al deporte a todos y todas, y fomentar la práctica de actividad físico-deportiva de toda la población en igualdad de condiciones y oportunidades.

IV.- 2017-2020 planean jasotako jardueretako bat da "Urnietako udal kiroldegiaren birmoldaketa proiektuaren 1. fasea" izeneko proiektuari dagokiona (1. jarduketa lerroa, A apartatua, 2017-DE02- 000071-01 espediente zenbakia), eta, horretarako, Aldundiak gehienez 249.880,00 euroko ekarpena egitea aurreikusi du. 1. Fase horrek barne hartzen du 0 kotaraino eraikitzeko fasea, eta kapitulu hauek hartzen ditu:

- Eraispenak, eraisketak eta hondakinak.
- Lur mugimenduak.
- Zimendatzea, forjaketa sanitarioa eta zolatak.

Esku-hartze horren bitartez, herritar guztiek erabiltzeko baldintzak jarri nahi dira.

Hain zuzen ere horregatik adostu dute bi alderdiek lankidetza hitzarmen hau sinatzea, honako klausula hauen araberakoa.

IV.- Una de las intervenciones incluidas en este plan 2017-2020 es la correspondiente a la "1ª Fase del proyecto de Remodelación del polideportivo municipal de Urnieta" (Línea de actuación 1, apartado A, expediente nº 2017-DE02- 000071-01), para la que está prevista una aportación foral máxima de 249.880,00 euros. Esta 1ª Fase engloba la fase de construcción hasta cota 0, y comprende los siguientes capítulos:

- Derribos, demoliciones y desescombros.
- Movimiento de tierras.
- Cimentación, forjado sanitario y soleras.

Mediante esta intervención, se pretende favorecer las condiciones de uso de estas áreas por toda la población.

Es por ello que las partes intervinientes han acordado suscribir el presente Convenio de Colaboración con arreglo a las siguientes

alkatetza
Urnietako udala

## KLAUSULAK

## CLÁUSULAS

**Lehenengoa.- Xedea**

Lankidetza hitzarmen honen xedea da lankidetza

**Primera.- Objeto**

Es objeto del presente convenio establecer un marco

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Urnietako udala

esparru bat ezartzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Urnietako Udalaren artean, 2017-2020 aldiko Gipuzkoako Kirol Ekipamenduen Planean aurreikusitako "Urnietako udal kiroldegiaren birmoldaketa proiektuaren 1. fasea" izeneko proiektua egikaritzeko.

de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Urnieta, en orden a la ejecución del proyecto "1ª Fase del proyecto de Remodelación del polideportivo municipal de Urnieta", previsto en el Plan de Equipamientos Deportivos para Gipuzkoa para el período 2017-2020.

**Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren betebeharrak.**

**Segunda.- Obligaciones de la Diputación Foral de Gipuzkoa.**

1.- 2017-2020 aldiko Gipuzkoako Kirol Ekipamenduen Planeko diru laguntzak emateko oinarri arautzaileetan ezarritakoarekin bat etorriz, Foru Aldundiak konpromisoa hartzen du egokitzat jasotako proiektuaren egikaritze kostuaren % 50eko gehieneko ekarpena egiteko. Proiektu hori egikaritzeko foru ekarpena inoiz ez da izango berrehun eta berrogeita bederatzi mila zortziehun eta laurogei euro baino gehiago (249.880,00). Zenbatekoak honela xehakatuko dira ekitaldien eta aurrekontuko partiden arabera:

1.- De conformidad con lo establecido en las bases reguladoras del otorgamiento de subvenciones del Plan de Equipamientos Deportivos para Gipuzkoa 2017-2020, la Diputación Foral se compromete a realizar una aportación máxima del 50% del coste de ejecución del proyecto considerado idóneo. La aportación foral para financiar la ejecución de este proyecto, en ningún caso, podrá ser superior a doscientos cuarenta y nueve mil ochocientos ochenta euros (249.880,00), y se formalizará de acuerdo al siguiente desglose de importes, por ejercicios, y su correspondiente partida presupuestaria:

| Urtea / Año | Partida | Zenbatekoa / Importe |
|---|---|---|
| 2019 | 0220.210.761.01.01 | 100.000,00 euro |
| 2020 | 0220.210.761.01.01 | 149.880,00 euro |

alkatetza
Urnietako udala

2.- Zenbateko hori, Urnietako Udalak egindako inbertsioen ziurtapen edo egiaztagiri nahikoak aurkeztutakoan ordainduko da, aurkeztutako ziurtapen edo egiaztagiri guztiak ordainduz, honela:

a) 199.904,00 euro, diru laguntzaren % 80, obra ziurtapenak aurkeztu ahala, dagozkien ordainagiriekin batera.

b) 49.976,00 euro, hau da, diru laguntzaren gainerako % 20a, onuradunak obraren amaierako ziurtapena edo likidazioa aurkeztuta, eta, harekin batera, dokumentu hauek:

2.- La referida cantidad será hecha efectiva, una vez se presenten por parte del Ayuntamiento de Urnieta las certificaciones o justificantes suficientes de las inversiones realizadas, mediante el abono de la totalidad de las certificaciones o justificantes presentados, del modo siguiente:

a) 199.904,00 euros, equivalente al 80% de la subvención, contra las certificaciones de obra que se vayan presentando, acompañadas de sus correspondientes facturas.

b) 49.976,00 euros, equivalente al 20% restante de la subvención, será hecha efectiva a la presentación de la certificación final o liquidación de la obra, acompañada de los siguientes documentos:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Urnietako udala

- Diruz lagundutako jarduketa finantzatu duten bestelako diru sarrera edo laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.
- Behar bezala egiaztatuta eta erregistro ofizialean inskribatuta dagoen pertsona independente batek egindako tasazio ziurtagiria, ondasun higiezinak eskuratzen badira.
- Kirol praktikari dagokionez emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruz egindako jarduketak eta horien eragina jasotzen dituen memoria zurigarria, egoeraren inguruan aldez aurretik egindako azterketaren arabera.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak lurraldeko baliabide energetikoak optimizatzeko garatzen dituen politikei jarraituz, plan honetan sartuta dauden proiektuen xede diren eraikinetako jarduketa guztiek proiektuaren eta bukatutako erakinaren Efizientzia Energetikoko Ziurtagiria aurkeztu beharko dute.
- Eraikin berriak eraikitzen direnean, zuritu beharko da, dagokion Eraikinaren Eraginkortasun Energetikoaren Egiaztagiriaren bidez, bere eraginkortasun kalifikazioa A klasekoa dela.

3.- Gipuzkoako Foru Aldundiak ez ditu inola ere finantzatuko aipatutako diru laguntzaren zenbatekoa gainditzen duten aurrekontu desbideratzeak.

**Hirugarrena.- Urnietako Udalaren betebeharrak**

Urnietako Udalak diru laguntzak onartzeak eragiten du, izaera orokorrarekin, 3/07 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, eta 24/08 Foru Dekretuak, apirilaren 29koak, foru arau hori garatzeko erregelamendua onesten duenak, ezarritako betebeharrak betetzea. Urnietako Udalak bere gain hartuko ditu, orobat, betekizun hauek:

- Una relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia.
- Certificado de tasación realizado por persona independiente debidamente acreditada e inscrita en el correspondiente registro oficial, en el caso de adquisición de bienes inmuebles.
- Memoria justificativa que recoja las actuaciones realizadas y su impacto sobre la igualdad de mujeres y hombres en relación con la práctica deportiva, en función del análisis de situación previo realizado.
- En línea con las políticas que está desarrollando la Diputación Foral de Gipuzkoa para optimizar los recursos energéticos en el territorio, todas las actuaciones en edificios que se desarrollen en proyectos incluidos en este Plan deberán presentar el Certificado de Eficiencia Energética del proyecto y del edificio terminado.
- En el caso de construcción de nuevos edificios se deberá justificar, mediante el Certificado de Eficiencia Energética de Edificios correspondiente, que su calificación de eficiencia energética sea de clase A.

3.- En ningún caso se financiarán desde la Diputación Foral de Gipuzkoa desviaciones presupuestarias que superen la cuantía de subvención señalada.

**Tercera.- Obligaciones del Ayuntamiento de Urnieta.**

La aceptación de la subvención por parte del Ayuntamiento de Urnieta implica la sujeción a las obligaciones establecidas con carácter general en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y en su reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril. El Ayuntamiento de Urnieta asumirá, además, las

alkatetza
Urnietako

1. Obrak gauzatzea aurretik Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuari aurrez aurkeztutako gauzatze proiektuari jarraikiz.

2. Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko teknikariei kirol instalazioko obren eta ondorengo kudeaketaren kontrol eta jarraipen lanak erraztea.

3. Dokumentazioa aurkeztea eta ezarritako gainerako betebeharrak betetzea, zehaztutako epeetan.

4. Gazteria eta Kiroleko Zuzendaritza Nagusiak deitzen dituen bileretan parte hartzea; horretarako, ahalik eta parte hartzerik handiena egon dadin, beharrezko bide eta bitartekoak ezarriko dira.

5. Kontabilitatean jasotzea hitzarmen honetan aurreikusitako foru ekarpenak.

6. Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea diruz lagundutako jarduera eta programen inguruko adierazpen guztietan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jarduera esparruan euskararen erabilera normalizatzeko 2018-2022 aldirako planaren arabera (2018ko uztailaren 26an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta; akats zuzenketa: abuztuaren 3ko GAO).

7. Hitzarmen honen xedeari lotutako komunikazio, argitalpen, programa, eta abarretan hizkeraren eta irudien berdintasunezko erabilera bermatzea; emakumea diskriminatzen duten irudiak saihestea; eta berdintasunaren, aniztasunaren, askotariko eginkizunen eta erantzunkidetasunaren irudia sustatzea.

8. Diruz lagundutako jarduerak finantzazio

siguientes obligaciones:

1. Ejecutar las obras de conformidad con el proyecto de ejecución que ha sido presentado previamente ante el Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2. Facilitar al personal técnico del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes de la Diputación Foral las labores de control y seguimiento de las obras y de la gestión posterior de la instalación deportiva.

3. Presentar la documentación y cumplir las restantes obligaciones que se le exijan en los plazos establecidos.

4. Participar en las reuniones que convoque la Dirección General de Juventud y Deportes, para lo que se establecerán los cauces y medios necesarios que faciliten la máxima participación.

5. Hacer constar en su contabilidad las aportaciones forales contempladas en este convenio.

6. Garantizar el uso de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco en las comunicaciones referidas a las actividades y programas subvencionados, de acuerdo con lo dispuesto en el Plan de normalización del uso del euskera en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de sus organismos autónomos para el periodo 2018-2022, publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa del 26 de julio de 2018 (corrección de errores BOG. de 3 de agosto).

7. Garantizar el uso no sexista del lenguaje y de imágenes en todas las comunicaciones, publicaciones, etc., referidas al objeto de este convenio; evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres y fomentar una imagen con valores de igualdad, diversidad, pluralidad de roles y corresponsabilidad.

8. Dar la adecuada publicidad del carácter público

publikoa jasotzen duela adieraztea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren irudi instituzionala txertatuz edo finantzaketa publikoa aipatuz karteletan, plaka oroigarrietan, material inprimatuetan, bitarteko elektroniko edo ikus-entzunezkoetan. Komunikabideetan egiten diren aipamenetan ere adieraziko da.

9. Bermatzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren presentzia kirol instalakuntzaren aurkezpen, inaugurazio eta antzeko ekintzetan.

10. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko titularrarekin batera, publikoan aurkeztea lankidetza akordio honen xehetasunak eta norainokoa, bi aldeek adostutako modu eta formatuak erabilita. Halaber, nahiz eta Aldundiko beste kide batzuek parte hartzeko aukera izan, diru laguntza ematen duen departamentuaren ordezkari bat izango da Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkaria programa honen sustapenari lotutako ekitaldi formaletan. Gainera, lankidetzaren edo proiektuaren emaitzari buruzko balantze publikoa egitearen egokitasuna aztertuko da programa bukatzen denean.

11. Bermatzea Gipuzkoako Lurralde Historikoan erroldatutako pertsona guztiek erabilera eta sarrera baldintza berdinak izango dituztela diru laguntza jasoko duen proiektua garatuko den kirol instalakuntza horretan.

12. 14/1998 Legeak, Euskadiko Kirolarenak, 97.c) artikuluan ezarritakoaren arabera, erakunde onuradunak, salbuespen gisa, onartuko du zentroaren doako lagapena Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuak interesgarritzat jotako kirol programetarako.

13. Lanak 2020ko abenduaren 31 baino lehen bukatzea.

de la financiación de las actividades o actuaciones objeto de subvención, mediante la inclusión de la imagen institucional de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como leyendas relativas a la financiación pública en carteles, placas conmemorativas, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, o bien en menciones realizadas en medios de comunicación.

9. Garantizar la presencia de la Diputación Foral de Gipuzkoa en los actos de presentación, inauguración y análogos relativos a la instalación deportiva.

10. Presentar públicamente junto a la persona titular del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa los detalles y alcance del presente acuerdo de colaboración, en los términos y formatos que ambas partes convengan. Se garantizará que, sin perjuicio de la presencia de otros miembros de la Diputación, un/una representante del Departamento concedente de la subvención ostente la representación de la Diputación Foral de Gipuzkoa en los actos formales vinculados a la promoción de este programa. Del mismo modo se analizará la conveniencia de realizar un balance público del resultado de la colaboración o del propio proyecto, al término del mismo.

11. Garantizar a todas las personas empadronadas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, las mismas condiciones de uso y de acceso a esta instalación deportiva en la que está previsto desarrollar el proyecto objeto de esta subvención.

12. En cumplimiento de lo establecido en el artículo 97, c) de la Ley 14/1.998, del deporte del País Vasco, la entidad beneficiaria asumirá, excepcionalmente, la cesión gratuita del centro para aquellos programas deportivos que sean considerados de interés general por el Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

13. Finalizar la ejecución de las obras antes del 31 de diciembre de 2020.

14. Ekipamenduen xedea gutxienez hamar urtez mantentzea.

15. Bermatuko du eskola lehiaketarik ez dela egingo, baldin eta Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusiak prestatutako programetan sartuta ez badaude, edo horretarako behar den aldez aurreko baimenik ez badute.

16. Hitzarmen honen xedearekin lotuta eskatutako datu guztiak ematea Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, eta onartzea indarrean dagoen arautegian aurreikusitako finantza egiaztatze eta kontroleko lanak.

14. Mantener el destino de los equipamientos durante un plazo mínimo de diez años.

15. Garantizar que no se celebren competiciones escolares que no estén incluidas en los programas que a tal efecto elabore la Dirección General de Juventud y Deportes, o que no dispongan previamente de su correspondiente autorización.

16. Facilitar a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas cuantos datos sean solicitados en relación con el objeto de este convenio y someterse a las actuaciones de comprobación o control financiero previstas en la normativa vigente.

**Laugarrena.- Beste laguntza eta diru laguntza batzuekiko bateragarritasuna.**

Lankidetza hitzarmen honen xede den diru laguntza bateragarria izango da helburu bera duten bestelako ekarpen, diru laguntza, laguntza, diru sarrera nahiz baliabideekin. Horiek edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk eman ahal izango ditu, bai Espainia mailakoek, bai Europar Batasun mailakoek, bai nazioarte mailakoek, betiere hurrengo paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe.

Hala ere, diru laguntzen zenbatekoak, modu bereizian kontuan hartuta edo bestelako ekarpen, diru laguntza, laguntza, diru sarrera nahiz baliabideekin batera kontuan hartuta, ezingo du diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu.

Lankidetza hitzarmen honetan araututako diru laguntza ez da estatu mailako laguntzatzat jotzen Europar Batasuneko Funtzionamendu Ituneko 107. artikuluaren 1. atalean xedatutako terminoetan. Izan ere, onuraduna ez da jarduera ekonomikoak gauzatzen dituen enpresa bat. Horrenbestez, aipatu itunak 108.3 artikuluan xedatzen duen jakinarazpen prozeduratik salbuetsita dago laguntza hori.

**Cuarta.- Compatibilidad con otras ayudas y subvenciones.**

La subvención objeto del presente convenio será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo dispuesto en el párrafo siguiente.

No obstante, el importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

La subvención regulada en este convenio no constituye ayuda estatal en los términos establecidos en el apartado 1 del artículo 107 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, dado que su beneficiario no es una empresa que desempeñe actividades económicas; en consecuencia, esta ayuda queda excluida del procedimiento de notificación previsto en el artículo 108.3 de dicho Tratado.

**Bosgarrena.- Diru laguntza emateko baldintzak aldatzea**

**Quinta.- Modificación de las condiciones de la concesión**

Alkatetza Urnietako udala

Diru laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, eta halaber, estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuek emandako beste diru laguntza batzuk ere eskuratuz gero, laguntza emateko ebazpenaren aldaketa etor liteke.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en todo caso, la obtención concurrente de subvenciones o ayudas otorgadas por otras administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de la concesión.

**Seigarrena.- Indargabetzea**

Alderdietako batek bere gain harturiko konpromisoak ez baditu betetzen, besteak ahalmena izango du zehatz-mehatz bete ditzan eskatzeko, edo hitzarmena amaitutzat eman dadin eskatzeko. Kasu horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako diru laguntza galduko da edo hori hein batean edo erabat itzuli beharko da.

Hitzarmena indargabetuko balitz, alderdiek zehaztuko dituzte egikaritzen ari diren jarduerak amaitu eta ordaintzeko baldintzak.

**Sexta.- Resolucion**

El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos, facultará a la otra para exigir su estricto cumplimiento o para solicitar la resolución del convenio y, en su caso, la pérdida o el reintegro total o parcial de la subvención concedida por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las actuaciones que se hallen en ejecución.

**Zazpigarrena.- Iraupena**

Hitzarmen hau bi aldeek sinatzen duten egunean jarriko da indarrean, eta hala jarraituko du bere xedea bete edo indargabetu arte; edonola ere, 2020ko abenduaren 31n amaituko da, hirugarren klausulan xedatutakoan ez beste guztian; izan ere, Urnietako Udalak bereganaturiko betebeharrek izaera iraunkorra dute.

**Séptima.- Duración**

Este convenio entrará en vigor el día de su firma por ambas partes, y su vigencia abarcará el periodo comprendido hasta el cumplimiento del objeto del mismo o hasta su resolución, y, en todo caso, finalizará el 31 de diciembre de 2020, salvo lo dispuesto en la estipulación tercera en lo que afecta a las obligaciones asumidas por el Ayuntamiento de Urnieta, de las que se deduce su carácter permanente.

**Zortzigarrena.- Esparru juridikoa**

Lankidetza hitzarmen honek administrazio izaera du. Ordenamendu juridiko-administratiboa aplikatuko da hori interpretatu eta garatzeko orduan, eta alderdiak administrazioarekiko auzien jurisdikziopean egongo dira.

Lankidetza hitzarmen honetan xedatutakoaz gain, aplikagarriak izango dira 2017-2020 aldiko Gipuzkoako Kirol Ekipamenduen Planeko diru laguntzak arautzeko oinarriak, Diputatuen Kontseiluak 2017ko urtarrilaren 10ean onetsitakoak,

**Octava.- Marco jurídico.**

El presente convenio es de naturaleza administrativa, rigiendo en su interpretación y desarrollo el ordenamiento jurídico-administrativo, con expreso sometimiento de las partes a la jurisdicción contencioso-administrativa.

Además de lo dispuesto en el presente convenio, serán de aplicación las bases reguladoras del otorgamiento de subvenciones del Plan de "Equipamientos Deportivos para Gipuzkoa 2017-2020", aprobadas por Acuerdo del Consejo de

Alkatetza
Urnietako udala

eta honako hauek: 3/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoa, eta hori garatzen duen erregelamendua, hain zuzen ere, 24/2008 Foru Dekretuak, apirilaren 29koak onetsitakoa. Halaber, aplikagarria izango da 4/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzkoa.

Aurreko guztiarekin ados daudela erakusteko, eta horrela jasota gera dadin eta bidezko ondorioak sor ditzan, bi aldeek hitzarmena izenpetzen dute jatorrizko bi aletan, goian aipatutako lekuan eta egunean.

**Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatua**

**Sin. / Fdo. : Denis Itxaso González**

Gobierno Foral, en sesión celebrada el 10 de enero de 2017, así como la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y su reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril, y la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Y, en prueba de conformidad con lo establecido en el presente documento, y para que así conste y produzca efectos donde proceda, lo firman en dos ejemplares originales en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

**Urnietako Udaleko alkatea**

**Sin. / Fdo.: Mikel Pagola Tolosa**

alkatetza
Urnietako udala